



**Bezeroen
Gogobetetasunari
buruzko 2023ko
Inkestari dagokion
txostena**

Abanto



Leioa



Zamudio / Derio



Donostia



Hernani



Bilbao




Vitoria-Gasteiz



Ortuella

Hondarribia



1. 2023ko inkestaren garapena
2. 2023ko ekintzen laburpena
 1. Gogobetetasunari buruzko 2023ko inkestaren emaitzak
3. Ondorioak → Ekintza plana
4. Eranskina: Emaitza zehatzak

01. INKESTAREN GARAPENA

Euskadiko Parke Teknologikoak (aurrerantzean, EPT) 2021ean abiarazi zuen helburua 2024an zuen Plan Estrategikoa. Plan horrek honetan datzan balio proposamen du: *“abangoardiako espazio eta azpiegitura iraunkorrak eta zerbitzu espezializatuak eskaintzea kalitate goreneko lan-ingurunea osatzen duten enpresei nahiz langileei”*. Horretarako, balio handia du gure bezeroen iritzia ezagutzeak.



Helburua: Euskadiko Parke Teknologikoko (EPT) bezeroen gogobetetze-maila ezagutzea.



Galdetegi kontrastatua eta sistematikoki hobetua; 1997tik aurrerako joerak daude eskuragarri.



2023ko berrikuntza nagusiak: Galdera berri bat kontzeptuzko bloke bakoitzaren ondoren. Bertan, bezeroari eskatuko zaio adieraz dezala zer egin dezakeen Parkeak bloke horri 9 edo 10 puntu eman diezazkion eta Parkearen ekarpen sozialarekin lotutako galdera berri bat sartu da.



% 28ko partaidetza lortu da (**2022ko % 24,27ko balioa baino altuagoa**): % 55 Araban (Vitoria-Gasteiz Campusa), % 23 Bizkaian (Zamudio/Derio, Leioa eta Abanto Campusak) eta % 20 Gipuzkoan (Donostia eta Hernani Campusak).



02.
**2023ko ekintzen
laburpena**

ATALA	2023AN GARATUTAKO EKINTZAK
 <p>Enpresetara hurbiltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Urteko bisita-plana, Parke Teknologikoko (Parke) bezeroen kezak eta beharrak bertatik bertara ezagutzeko. (2023KO EKINTZA PLANA)
 <p>Azpiegiturak eta eraikinak</p>	<p>1. TRANTSIZIO DIGITALA BULTZATZEA (2023KO EKINTZA PLANA)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Instalazioak arautzeko eta kontrolatzeko BMS sistema mailaz maila ezartzea. Sistema hori Euskadiko Parke Teknologikoko (EPT) eraikinen % 28 da 2023a ixtean. • Euskadiko Parke Teknologikoaren jabetzako eraikinen % 100ean energia-kontsumoak monitorizatzea ahalbidetuko duten neurketa- ekipamenduak instalatzeko lizitazioa abian jartzea. • Vitoria-Gasteiz Campuseko 5G hedapena amaitzea eta Abanto Campusean hedatzen hastea. <p>2. TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA NEUTRALTASUN KLIMATIKOA BULTZATZEA (2023KO EKINTZA PLANA)</p> <p>2023an ezarritako neurrien bidez, % 9,55eko igoera lortu da energia berriztagarrietatik datorren autokontsumoan, 2023an energia-kontsumoaren % 25,98ko murrizketa 2015arekin alderatuta, eta % 47,25eko murrizketa karbono-aztarnan 2019arekin alderatuta (130 tona Co2 baliokide saihestu zaizkio atmosferari).</p> <p>Horretarako, besteak beste, honako ekintza hauek egin dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) PTEren jabetzako azpiegitura guztien energia-auditoretzak amaitzea b) Eraikinen ingurutzailen termikoak egitea/birgaitzea c) Sorkuntza termikoko ekipoak ordezkatzeta, fosilak ez diren erregaietarako trantsizioa d) 16 instalazio fotovoltaiko ezartzea (964 KW potentzia instalatua) e) Ibilgailu elektrikoetarako 67 karga-punturen inplementazioa burutuz egokitzea azpiegitura f) Parkeko ibilgailuen % 81 berritzea, ibilgailu elektrikoak eskuratuz g) Jasangarritasun eta Mugikortasun Foroak egitea Parkeko enpresekin 3 lurraldeetan h) Carpooling Aplikazioa (Parke Carpool) ezartzea, partekatutako ibilgailuaren bidez mugikortasun jasangarria sustatzeko i) Spirlurreko jasangarritasun lantaldean parte hartzea <p>3. ENPRESENTZAKO AZPIEGITURA-ESKAINZA BERRIA</p> <ul style="list-style-type: none"> • KreaGune aretoak abian jartzea, enpresetako lantaldeetan sorkuntza- eta berrikuntza-dinamikak egitera gonbidatzen duten sormen-areto berriak.

ATALA

2023AN GARATUTAKO EKINTZAK

Zerbitzu

Bereizgarriak

Enpresen nahiz pertsonen beharrak asetzeko hainbat jardunaldi eta ekintza garatu dira honako ekimenen esparru hauetan: BeParke, K·business, K·talent, K·impulse, K·media eta K·future.

BEParke

- Be Parke Klubaren proposamenaren diseinu eta aurkezpen ofiziala. Aisialdi, Kirol, Osasun eta Kultura eskaintza bateratua da Euskadiko Parke Teknologikoan (EPT) [\(2023KO EKINTZA PLANA\)](#)
- Aisialdiko eta kulturako jarduerak egin dira Euskadiko Parke Teknologikoan kokatutako erakundeetan lan egiten duten pertsonentzat.

K·business

- Inguruko beste enpresa eta eragile batzuekin negozioa garatzeko, 24 ekimen burutu dira hainbat arlotan, hala nola IKT arloan, aeroespazialean, ingeniartzan, kirolean, teknologian, besteak beste. 243 enpresak baino gehiagok hartu dute parte ekimenetan, eta aldebiko topaketa ugari egin dira, akordioak eta lankidetzak eragin dituztenak. [\(2023KO EKINTZA PLANA\)](#)

K·talent

- Giza kapitala Parkera erakartzeko eta gure enpresen talentua garapen profesionalaren eta bokazio zientifiko-teknologikoen sustapenaren bidez fidelizatzeko, 30 ekintza burutu dira arlo horretan, eta 2.274 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte. [\(2023KO EKINTZA PLANA\)](#)
- Basque Talent 2023 proiektuan parte hartzea. Proiektu hori EAE osorako ekimena da, talentuaren erronkari heltzeko, talentua garatu dadin, atxikitzeko eta erakartzeko, eta EPTko enpresentzako Basque Employer Branding prestakuntza-ekintza abian jartzeko. [\(2023KO EKINTZA PLANA\)](#)

K·impulse

- Enpresei hazten, ikusgarriagoak eta aintzatetsiagoak izaten, merkatura arrakastaz iristen, merkatu berriak lortzen eta kanpoan Parke balioen erreferente izatea lortzen laguntzeko, 24 ekintza burutu dira finantza-eragileekin (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, CDTi, arrisku-kapitala...), eta 356 enpresak baino gehiagok hartu dute parte. [\(2023KO EKINTZA PLANA\)](#)

K·future

- Gure enpresei paradigma teknologikoen aldaketak eta ekonomiaren erronka digital berriak aurreratzen dizkieten mintegiak. Neutronika, ChatGPT, Zibersegurtasuna, MPN 5G, konputazio kuantikoa eta antzeko esparruetako lantaldeak eta prestakuntza-ekintzak garatzea. 279 enpresak baino gehiagok hartu dute parte horietan. [\(2023KO EKINTZA PLANA\)](#)

K·media

- EPTko enpresen jarduera ikusarazteko estrategia indartzeko eta talentuaren eta berrikuntzaren euskal ekosisteman duten posizioa sendotzeko helburua duen zerbitzua. Parke Teknologikoan kokatutako enpresen proiektuak ikusarazteko 306 albiste argitaratu dira, 29 buletin digital kaleratu dira Parkeren eta Next Generation funtzen berrikuntza nagusiei buruzko informazio-fluxua aktibo mantentzeko, eta, gainera, 16 prentsa-ohar egin eta zabaldu dira, 428 berri eragin dituztenak. [\(2023KO EKINTZA PLANA\)](#)



ATALA

**AZPIEGITURAK ETA
ERAIKINAK, PARKERAKO
SARBIDEA**

LURRALDE HORRETAN 2023an GARATUTAKO EKINTZA ESPEZIFIKOAK

1. TRANTSIZIO DIGITALA BULTZATZEA (2023KO EKINTZA PLANA)

- Komunikazio-sistemak hobetzea, 5G MPN sare pribatu bat txertatuz. Sare hori aitzindaria da estatu mailan, sarbide ultra azkarra du eta segurtasun-maila handiak, eta ezin hobea da IOT, Robotika eta adimen artifizialean industria-erabilerako kasuak garatzeko.

2. TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA NEUTRALTASUN KLIMATIKOA BULTZATZEA (2023KO EKINTZA PLANA)

- Autohornidurarako euri-ura biltzeko baltsan instalazio fotovoltaiko flotatzailea amaitzea Araban.
- E5, E6 eta E7 eraikinetan argiztapena ordezte LEDera
- E8 eraikinetan autokontsumorako markesina fotovoltaikoa ezartzeko lizitazioa
- Ibilgailu elektrikoentzako kanpoko 34 karga-puntu ezartzea Araban
- Jasangarritasun- eta mugikortasun-foroak egitea Vitoria-Gasteiz Campusean.
- Carpooling Aplikazioa (Parke Carpool) ezartzea Vitoria-Gasteiz Campusean, partekatutako ibilgailuaren bidez mugikortasun iraunkorra sustatzeko.

3. ENPRESENTZAKO AZPIEGITURA-ESKAINZA BERRIA

- KreaGune abian jartzea, E6 eraikinean dagoen sormen-gela berria, enpresetako lantaldeetan sorkuntza- eta berrikuntza-dinamikak egitera gonbidatzen duten sormen-areto berria.

4. PARKERAKO BIGARREN SARBIDEA

- Parke Teknologikorako bigarren sarbide baterako negoziazioan aurrera egitea.

**ZERBITZU
OROKORRAK**

Garraio kolektiboko zerbitzua (autobusa eta anezkak) optimizatzea eta egokitzea, campusa hiriarekin lotzeko (2023KO EKINTZA PLANA)
Harrera eta Areto Zerbitzua: Zerbitzua berritzea (enpresa esleipenduna Tisa S.A. da), aretoen eskaintza handitu egin da KreaGune gehitu zaio-eta (Sormen Aretoa)

ATALA	LURRALDE HORRETAN 2023an GARATUTAKO EKINTZA ESPEZIFIKOAK
 Azpiegiturak eta eraikinak	<p>1. AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Abanto Campuseko egoitza/EIC eraikina amaitu da. 12.700 m koadro ditu enpresen zerbitzura Abanto Campusean, Maria Telkes izena duen bigarren enpresa-eraikin bat eraikitzen hastea KreaGune, sormen-areto berria, abian jartzea 101 eraikinean, enpresetako lantaldeetan sorkuntza- eta berrikuntza-dinamikak egitera gonbidatzen duen aretoa. <p>2. TRANTSIZIO DIGITALA BULTZATZEA (2023KO EKINTZA PLANA)</p> <ul style="list-style-type: none"> Abanto Campusean 5G ezartzen hastea <p>3. TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA NEUTRALITASUN KLIMATIKOA BULTZATZEA (2023KO EKINTZA PLANA)</p> <ul style="list-style-type: none"> Zamudio/Derio Campusetako argiteria publikoaren trantsizioa LED teknologiarara 205. eraikinean argiak kontrolatzeko presentzia-sentsoreak Argiztapen trantsizioa LEDera, 612 eraikinean 101 eraikinaren Inguratzailea Birgaitzea 100 eraikinaren inguratzailea egiten amaitzea 101 eraikinaren klimatizazioaren eraberritze integralaren hasiera 612 eraikineko ur bero sanitarioko gas-galdara aldatu eta bero-ponpa jartzea Plaka fotovoltaiako instalatzea 101, 103,205,208,407,500,502,612,801 eraikinetan Ibilgailu elektrikoentzako kanpoko 21 birkarga-puntu ezartzea BPZTn Carpooling Aplikazioa (Parke Carpool) ezartzea Bizkaian eta Parkeko gainerako Campusetarantz, mugikortasun jasangarria bultzatzeko Jasangarritasun eta mugikortasun foroak egitea Bizkaiko Campusen
 Zerbitzu Orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> Abanto Campusean jatetxe/kafetegi bat martxan jartzea Abantoko Campuserako zaintza- eta segurtasun-zerbitzua abian jartzea. Abanto Campuseko harrera- eta areto- zerbitzua abian jartzea Harrera eta Areto Zerbitzua: Zerbitzua berritzea (enpresa esleipenduna Tisa S.A. da), aretoen eskaintza handitu egin da KreaGune gehitu zaio-eta (Sormen Aretoa)



ATALA	LURRALDE HORRETAN 2023an GARATUTAKO EKINTZA ESPEZIFIKOAK
<p>Azpiegiturak eta eraikinak</p>	<p>1. AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • A2.2 eraikina eraikitzen jarraitzea • Parke Teknologikoko Eraikin Nagusian KreaGune sormen-aretoa martxan jartzea. <p>2. TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA NEUTRALTASUN KLIMATIKOA BULTZATZEA (2023KO EKINTZA PLANA)</p> <ul style="list-style-type: none"> • B9 eraikitzea eta igogailuen energia-eraginkortasuna eguneratzea • B9 eraikineko estalkiak birgaitzea • B9ko girotze-, aireztatze- eta erregulazio-sistema ordezte • B9: Eraikinetara sartzeko ate automatikoak egokitzea irisgarritasunerako eta energia-eraginkortasunerako • LED argiztapena A11n eta B8 garaje • A11, A12, B2, B8, B9 eraikinetan plaka fotovoltaikoak instalatzea • A11, A12, A21, B8 eta B9 eraikinen barruan 12 birkarga-puntu eraikitzea • Carpooling Aplikazioa (Parke Carpool) ezartzea, partekatutako ibilgailuaren bidez mugikortasun jasangarria sustatzeko • Gipuzkoa Campusetarako jasangarritasun eta mugikortasun foroak egitea
<p>Zerbitzu Orokorak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Harrera eta Areto Zerbitzua: Zerbitzua berritzea (enpresa esleipenduna Tisa S.A. da), aretoen eskaintza handitu egin da KreaGune gehitu zaio-eta (Sormen Aretoa)







03.
**Gogobetetasunari
buruzko 2023ko
inkestaren
emaitzak**

03.01 BEZEROEN EMAITZAK EPT

Baloratutako alderdi guztietan lortutako puntuazioak oso altuak dira, 10etik 8,5 baino altuagoak.



Blokeen garrantziaren % 2022an




Gure bezeroen % 49,69k azpiegituren eta eraikinen blokeari ematen dio lehentasuna, eta % 5,66k baino ez ditu zerbitzu espezializatuak lehenesten.

Joera hori eraikin propioa duten bezeroengan zein Parkeren edo hirugarrenen jabetzako eraikinetan instalatutakoengan islatzen da.

	Enpresak alokairuan			Eraikina jabetzan duten enpresak	Orotarako %
	Hirugarrenen jabetzakoak	Parkeren jabetzakoak	Alokairuari buruzko datu globala		
ERABILTZAILEREANTZAKO ARRETA	% 0,00	% 31,11	% 24,35	% 22,73	% 23,90
AZPIEGITURAKETA ERAIKINAK	% 64,00	% 50,00	% 53,04	% 40,91	% 49,69
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	% 8,00	% 1,11	% 2,61	% 13,64	% 5,66
ZERBITZU OROKORRAK	% 28,00	% 17,78	% 20,00	% 22,73	% 20,75


03.02. Puntuazio handiena duten kontzeptuak

Ara ba




ARLOA: Erabiltzailearentzako arreta **(9,41)**

EPT




ARLOA: Erabiltzailearentzako arreta **(9,28)**

Gipuzkoa



ARLOA: Erabiltzailearentzako arreta **(9,13)**


Bizkaia



ARLOA: Erabiltzailearentzako arreta **(9,27)**

03.03. Puntuazio txikiena duten kontzeptuak


Araba



Aunque no se dispone de la valoración 2023 del ítem "Autobús", existen menciones en la encuesta a la necesidad de mejora de este servicio.


ARLOA: ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK (8,74)

EPT




ARLOA: ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK (8,51)

Gipuzkoa



ARLOA: ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK (8,21)

Bizkaia





ARLOA: ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK (8,44)

03.04 BEZEROEN EMAITZAK ARABA

Kontzeptu guztiak 10etik 8,7 baino altuago puntuatzen dira, eta Zerbitzu Espezializatuak balorazioa da balorazioan hazkunde handiena erakusten duen blokea.

Parkearen gogobetetze orokorra 10etik 9an kokatu da lehenengo aldiz.



Arabako bezeroek garrantzia ematen diete Parkearen azpiegiturei, erabiltzailearentzako arretari eta Zerbitzu Orokorrei, eta garrantzi oso txikia ematen diote Zerbitzu Espezializatuak blokeari.


	Enpresak alokairuan			Eraikina jabetzan duten enpresak	Orotarako %
	Hirugarrenen jabetzakoak	Parkeren jabetzakoak	Alokairuari buruzko datu globala		
ERABILTZAILAARENTZAKO ARRETA	% 0,00	% 38,71	% 31,58	% 33,33	% 32,20
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	% 57,14	% 41,94	% 44,74	% 28,57	% 38,98
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 9,52	% 3,39
ZERBITZU OROKORRAK	% 42,86	% 19,35	% 23,68	% 28,57	% 25,42

GAIA	IRUZKINAK ETA IRADOKIZUNAK
ERABILTZAILEAREN NTZAKO ARRETA	<ul style="list-style-type: none"> • Dena oso ondo. • Proaktibitate handiagoa eta balizko eskaerei aurrea hartzea.
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	<ul style="list-style-type: none"> • Aparkalekuak hobetzea, plaza kopurua handituz eta itzalpean, zuhaitzak landatuz edo panel fotovoltaikoak jarritz. • Parkearen zirkulazioa optimizatzea, sarbide, E7ra igotzeko pasabidea, zebra-bideak eta eraikinetako seinaleak hobetuz. Parkerako sarrera hobetu behar da bigarren sarbide baten bidez. • Hobetzeko proposamena, gaur egungo munduko egoera kontuan hartuta, aldaketa klimatikoak gugan eragin nabarmena duela ikusita: landare-espezieen landaketa masiboa proposatzen da, batez ere espezie autoktono eta erresistenteetako zuhaitzak, hala nola arteak eta beste landare mota batzuk, zuhaixkak... Parkea oso ingurune atsegina da, baina larre- edo belar-azalera handia du, eta zaintza gehiago behar ditu begien aurrean atsegina izateko; ur asko behar du berde egoteko, eta zuhaitzek, aldiz, luraren hezetasuna mantentzen dute, itzalak sortzen dituzte eta giro-tenperatura murrizten dute. • Bizikletentzako azpiegitura falta da (aparkalekuak, puzgailua, dutxak...). • Bilera-geletan kalitatezko proiektoreak jartzea (batez ere pantailak). Pantaila aurrez konfiguratu beharko litzateke, agertokiaren antolamenduaren arabera egokitu ahal izateko; izan ere, agertokian mahai bat jartzen denean, parte-hartzaileek pantaila partzialki estaltzen dute. • E7ko kafe-makinak gaizki jarrita daude, eta gune deseroso eta ez-segurua sortzen dute. • Eraikinaren kanpoaldeko zein barruko garbiketen maiztasuna handitzea. <p><u>Eraikinen klimatizazioa:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ada Lovelace eraikinaren erosotasuna hobea izango litzateke klimatizazio-sistema (batez ere neguko garairako) eta ur beroa izango balitu. • Handikap handia da gaur egun aire beroaren zein hotzaren sistema zentralizatu izatea, sistema hori mailakatzeko eta giro erosoak sortzeko batera ona ez den sistema batekin, bai langileentzat, bai bezeroentzat, bai instalazioen erabilentzat. • Klimatizazio-ordutegiak gure langileen gogobetetzeari eragiten dio. Instalazioaren erabilerari dagokionez, nahiago genuke subiranotasun handiagoa, Parkeak zerbitzua ematea eta guk erregulatzea • Ona litzateke gure teknikariek bilera batean klimatizazioaren erregulazioa partekatu ahal izatea.
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Web-orria ez da oso intuitiboa, ezta deigarria ere, eta gauza bera gertatzen zaio aldizkariari. • Zaila da bikaintasunera iristea, baina bide onetik goaz. • Enpresei zerbitzu horiek eskaintzeko modu berriak bilatzea, berrikuntza. • Aretoen alokairu-zerbitzua garesti samarra da parkeko enpresentzako zerbitzua izateko, eta denbora gehiena erabili gabe daudela kontuan izanda. • Komunikazio-zerbitzu publikoak • Enpresen kokapena eta eguneratzea. Ez dago egunean. Nahiko nekagarria da bilatzea. • Parkeko langileen familientzat aisialdi zientifikoko eta/edo kulturalako eta/edo ingurumeneko programak sortzeko aukera, elkarren arteko harreman pertsonalak sortzeko.


GAIA	IRUZKINAK ETA IRADOKIZUNAK
ZERBITZU OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa horietan proaktibitatea eta ohiko nahiz ezohiko egoerei aurre hartzea. • Wifi publikoa oso mugatua da. Orain 5Grekin askoz hobea izatea espero dugu. • Argia moztzen denean, nahiz eta berehalakoa izan, routerra berrabiarazi egiten da eta 10-15 minutu behar izaten dira konexioa berrezartzeko. Hori erraz saihestu liteke routerra eta <i>switch</i> nagusiak sostengatzen dituen SAI baten bidez, eta horrek ez luke kostu handirik izango. • Garraio publikoa hobetzea. Hirirako autobus-lineak eta garraio zerbitzua Parkearen defizit handia da. Miñak Gasteizekin duen komunikazioa txarra da, etengabeko garraio publikoa behar da hiriburuaren eta Parkearen artean, komunikazioen eta lekualdatzeen zerbitzu publikoa handitu behar da. Gasteiz-Parke joan-etorri autobus ordutegi gehiago, eta urte osoan zehar mantendu.
PARKEAREN IZAERA BERRITZAILEA	<ul style="list-style-type: none"> • Bere ikuspegi berritzailea sakonago ezagutu nahi nuke.
PARKEAREN EKARPEN SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> • Bikaina. Ezinbestekoa gaur egungo gizartean. • Parkeak arlo horretan egindako ahalegina oso positibotzat jotzen dugu. Proposatzen diren ekimen guztiekin dugun konpromisoari eutsiko diogu. • Parkean errotutako enpresen irudi teknologikoa sustatzea. • Ekimen onak. Gai horien inguruko jarduerak antolatzen dira aldizka, eta beste erakunde batzuek antolatutako jarduerak ere zabaltzen dira. • Bide ona da, iraun egin behar da. Beti hobetu daiteke. • Nire ustez, alderdi sozial horiek guztiak hartzen dira kontuan, eta horrek Parkeari bertan lan egiten dugun pertsonetikiko hurbiltasun-ezaugarria ematen dio.
ASEBETETZE OROKORRA	<ul style="list-style-type: none"> • Parkearen balio-apustueta berritzea eta premiei aurre hartzea azkarrago. • Nabarmendu ditugun arazoei aurre egitea: Klima. Aparkalekua. Kafea. • 8. puntuan "Zerbitzu Orokorra" baino ez dugu hautatu, baina CIC energiGUNE n uste dugu parkearen funtzionamenduaren hobekuntza nabarmena zerbitzu eta azpiegitura erabilgarri guztien baturari zor zaiola. Joera horri jarraituz, espero dugu datozen urteetan nazioarteko lehen mailako talentua erakartzeko gune bihurtuko garela. Eskerrik asko. • Parkeko zerbitzu batzuk ez dituzte ezagutzen, eta ezagutu nahi nituzke, eta ahal den neurrian, ondo badatatzeko, horietaz baliatu ahal izatea.

03.06 BEZEROEN EMAITZAK BIZKAIA

Alderdi guztiak puntuatu dira 8,4tik gora. Parkeko azpiegiturena da puntuazioan igoera handiena lortu duen eremua.



Blokeen garrantziaren % 2023an



- ERABILTZAILERENTZAKO ARRETA
- AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK
- ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK
- ZERBITZU OROKORRAK

Argi dago Bizkaiko bezeroek garrantzi handia ematen diotela "Azpiegiturak eta Eraikinak" blokeari.


	Enpresak alokairuan			Eraikina jabetzan duten enpresak	Orotarako %
	Hirugarrenen jabetzakoak	Parkeren jabetzakoak	Alokairuari buruzko datu globala		
ERABILTZAILERENTZAKO ARRETA	% 0,00	% 27,03	% 21,28	%14,29	% 19,67
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	% 90,00	% 54,05	% 61,70	% 50,00	% 59,02
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	% 0,00	% 2,70	% 2,13	% 14,29	% 4,92
ZERBITZU OROKORRAK	% 10,00	% 16,22	% 14,89	% 21,43	% 16,39

GAIA	IRUZKINAK ETA IRADOKIZUNAK
ERABILTZAILEREAN TZAKO ARRETA	<ul style="list-style-type: none"> • Batzuetan, harrerako aurrez aurreko arretako langileak ez daude bere lekuan, beste zeregin batzuetan ari direlako. Agian kartel bat jarri beharko litzateke: "Minutu gutxi barru izango gara zuekin". • Gure kasuan, datozen hilabeteetan Parketik atera beharko dugu, ez baitago gure espazio-premia berrietara egokitzen den aukerarik. • Euskararen gaian, nik zuzenean gaztelaniaz hitz egitea eskatzen dut, beraz, ezin dut baloratu.
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko seinaleen bidez orientatzea eta eraikinak kokatzea oraindik ere zaila da enpresara datozen bisitentzat. Identifikazio bat jar liteke eraikinaren goiko aldean (zenbakiak) edo parkeko zonetan, koloreen arabera. • Bizikletentzako plazak, BIC Bizkaia eta Itelazpi eraikinetik gertu dauden merendero mahaiaik eta hiri-altzariak (eserlekuak) jartzea eraikinaren kanpoaldean. • Ahal den neurrian, saiatu haur-eskolaren ondoan dagoen ibaiaren ibilgurean arazoa konpontzen, duela urte askotatik hesiz balizatuta baitago. • Eraikinak hobetzea: gure eraikina oso polita da, baina kristal bikoitzarekin bunker bat bezalakoa da; 205B eraikineko hall-a. • 407 eraikinaren klimatizazioa: eremu komunetan korrante handia dago, eta neguan hotz handia egiten du. • Aparkalekuen zoladura hobetzea eta partzelak markatzea, Lekunbiz biribilguneetik Euskaltelera sartzeko bidea konpontzea, kanpoko lauzak, aparkalekutik 407 eraikinerako sarbidea, eskailerak ez baitira seguruak. • Kanpoko argiztapen orokorra, eraikinetako sarrerak, errepede nagusia, Lekunbiz biribilgunea Euskaltelera, aparkalekuak, etab. hobetzea. • GJHen 11. puntua – "Garraio jasangarria" – praktikan jartzeari begira, interesgarria litzateke Zamudioko Udalarekin akordio batera iristea, tren-geltokitik "Parkeraino" doan bidea oinezkoentzat gaitu dezaten. Ibilbidearen zati bat espaloirik gabeko errepedekoa da, ingurua ez dago ondo argizatuta, eta lehenengo orduan, edozein egunetan disgustu bat egongo da norbait zapalduko dutelako. • Geldosi bultzada eman behar zaio gainerako eremuekin pareka dadin, orain erabiltzeko gaituta baitago. <p><u>Aparkalekuak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • 100-101-103-105 eraikinaren inguruan aparkaleku-erakin bat birplanteatzea. 105 eraikinean izandako aldaketan ondorioz, 103 eraikinean dauden pertsonen zaila bihurtu zaie aparkatzea. • Aparkaleku gutxi dago eraikinetatik gertu langileentzat nahiz bisitariarentzat. • Parkearen arazo nagusia garraio publikoa eta aparkalekua dira (berez, elkarri lotuta doaz).
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ahalegin goresgarria egiten duzue lankidetzarako eta enpresen arteko harremanetarako espazioak eta uneak sortzeko, baina gehiago partekatuzera bultzatzen gaituen zerbait falta dela iruditzen zait. Pistarik ematen badizue, beste enpresa batzuetako norbaitekin maiz bazkalduta oso proiektu interesgarriak sor daitezke. Batzuetan ez da hainbeste Parkeak antolatzen duen zerbaiteara joatea, baizik eta Parkean egunero egiten duen zerbaiteara joatea. • Horiek hobetzen eta gehiago zabaltzen saiatzea. • Badakit zerbitzuak badaudela (hortaz, hori ondo dago), baina ez ditugu erabiltzen, beraz, ez dakit ondo edo gaizki dauden. Webgunera ez naiz inoiz sartzen. • Talentuari eusteko, aurrez aurreko lana erraztu behar dugu, eta uste dugu funtsezkoa dela langileek kalitatezko garraio publikoa izatea, eta, norberaren autoan joan behar izanez gero, trafiko arina eta aparkalekuak izatea. Ez dago ondo konponduta, eta Parkeko "Akilesen orpoa" da.


GAIA	IRUZKINAK ETA IRADOKIZUNAK
ZERBITZU OROKORRAK (8 AIPAMEN)	<ul style="list-style-type: none">• Gorabeheren kudeatzaile baten falta sumatzen dut, haren egoeraren trazabilitatea egin ahal izateko.• Telekomunikazio-zerbitzua hobetzea: Estaldura mugikor handiagoa BIC Bizkaia eraikinean eta gainerako eraikinetan. Gure telefonia-hornitzaileari antena berri bat jartzeko eskatu behar izan diogu, baina telefono partikularra korporatiboaz bestelako konpainia batekin dutenek batzuetan ez dute estaldura onik.• KOMUNIKAZIOAK HOBETZEA, Bilborako, Getxorako eta abarretarako garraio publikoa. ETA PARKEAREN BARRUAN, adibidez, Getxo aldearekiko komunikazioak/garraioa oso urriak dira, eta hobetu egin beharko lirateke, herri horretan langile asko bizi baitira.
PARKEAREN IZAERA BERRITZAILEA (AIPAMEN 1)	<ul style="list-style-type: none">• Parkeko enpresen artean berrikuntza irekia dinamizatzea.
PARKEAREN EKARPEN SOZIALA (6 AIPAMEN)	<ul style="list-style-type: none">• Uste dut Parkea gero eta gehiago dela sozialki konprometituta dagoen eta eredugarritasun-ekintzak dituen erakundea.• Pixkanaka-pixkanaka aurrera doa.• Itelazpik "Emakumea teknologian" eremuan jartzen du gizarte-fokua eta arlo horretan Parkearekin sinergiak ezartzen jarraitu nahiko genuke: LH Parke ekimena, STEAM sentsibilizazio-hitzaldiak eta abar.• Nabaritu da Parkeak apustu handia egin duela gizartearen eta ingurumenaren arloan.• Ez zait iristen.• Sustatzen dela uste dut.
ASEBETETZE OROKORRA (3 AIPAMEN)	<ul style="list-style-type: none">• Zorionak zuen lanarengatik.• Ertzetako guneean jatetxeen eskaintza handiagoa (Derion, esaterako), dagoen eskaintzak bidean 15 minututik gora ematea eskatzen baitu.• Parkearen sarrera eta irteera oso txarra da puntako orduetan.

03.08 BEZEROEN EMAITZAK GIPUZKOA

Eremu guztietako puntuazioak altuak edo oso altuak dira, eta beti 10etik 8 baino handiagoak. Goranzko joera txiki bat dago, ia bloke guztietan ikus daitekeena.



Blokeen garrantziaren % 2023an



- ERABILTZAILEARENTZAKO ARRETA
- AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK
- ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK
- ZERBITZU OROKORRAK

“Azpiegiturak eta eraikinak” blokea da Gipuzkoan kokatutako bezeroentzat eremu garrantzitsuena, eta, ondoren, Parkeko Zerbitzu Orokorrak. 3 lurraldeetatik Gipuzkoa da Zerbitzu Espezializatuari garrantzi handiena ematen dion lurraldea.

	Enpresak alokairuan			Eraikina jabetzan duten enpresak	Orotarako %
	Hirugarrenen jabetzakoak	Parkeren jabetzakoak	Alokairuari buruzko datu globala		
ERABILTZAILEARENTZAKO ARRETA	% 0,00	% 27,27	% 20,00	% 11,11	% 17,95
AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK	% 37,50	% 54,55	% 50,00	% 55,56	% 51,28
ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK	% 25,00	% 0,00	% 6,67	% 22,22	% 10,26
ZERBITZU OROKORRAK	% 37,50	% 18,18	% 23,33	% 11,11	% 20,51

GAIA	IRUZKINAK ETA IRADOKIZUNAK
ERABILTZAIL EARENTZAKO ARRETA	<ul style="list-style-type: none">• Eraikin berriaren egiten ari diren obrarako irisgarritasun eta erraztasun handiagoa.• Batzuetan kosta egiten da harreraren norbait aurkitzea.
